

Beste batzuekin batera gara

15. saioa

Gizakiak bizikide izateko, gizartean edo elkartean bizitzeko deia jaso du. Bestearekin bat egiten dugunean..., orduan aitortzen eta onartzen dugu geure burua. Hartu-emanerako hezi behar dugu. Hartu-emanean, konektatuta, elkarrekiko eta Jainkoarekiko mendekotasunean gauden izakiak gara, Jainkoaren antz eta irudiko garelako. Hauxe da gure fedearen ezaugarrietako bat: Jesusen jarraitzaile gara elkartean, beste batzuekin batera.

SAIOAREN HELBURUAK

Helduak:

- Senitartean eta gure inguruan nolako hartu-emanak ezartzen ditugun ezagutu
- Hartu-emanean, besteekin egotean, gizatiarrago, gizakiago, zoriontsuago garelako sentitu
- Familiako kide bakoitzaren autonomia aitortu

Haurrak:

- Hartu-emanean, besteekin egotean, zoriontsuago garelako sentitu
- Bakarrik egin ditzakegun gauzez jabetu

GARAPENA

Haur eta heldu batera garelako, talde handian ekingo diogu saioari, partaideak eta landuko den gaia aurkeztuz. Ondoren, helduak eta haurrak banandu.

HELDUAK

Beste batzuekin batera gara agiria banatu eta taldean irakurri. Idatziz jasotako erantzunekin eta irakurritakoak eragiten digun oihartzunarekin, elkarrizketan jardun. Galdera hauek eta antzekoak lagungarri izan daitezke:

- ❖ Zein hartu-eman dut bikotekidearekin eta seme-alabekin?
- ❖ Senitartean, lagunartean,... zaintzen ditut hartu-emanak? Nola?
- ❖ Bizitzako arloren batean, neure burua aski dudala uste dut? Zergatik? Honek, pertsona hobea izatea dakarkit?
- ❖ Denbora hartzen duzu bikotekidearekin, seme-alabekin "egoteko"?

- ❖ Aitortzen duzu seme-alabak apurka-apurka jadesten diharduen burujabetza? Nola sentitzen zara?
- ❖ Seme-alaben jokaera "ausartak" adoretzen dituzu?
- ❖ Bestea aitortzen eta onartzen duzunean, hobetu egiten zarela, giza kalitateari dagokionez irabazi egiten duzula uste duzu?
- ❖ Zure fedea... badu zerikusirik guzti honetan?

Eragileak, gizakiaren izatearen oinarria azpimarratuko du: senidetasuna. Jesusek primeran haragitzen du hori bere jokaeran.

Amaitzeko, seme-alabei buruzko Gibranen olerkia banatu, elkarrekin irakurri eta bere inguruan hitz egin dezaten.

HAURRAK

Hona hemen hurrekin egiteko jarduerak. Talde bakoitzeko eragileak ikusiko du zein ariketa den egokiena, partaideen kopuru eta adina kontuan hartuta. Jardueretako batzuk etxean, familian ere egin daitezke.

Zirkuluan jarri eta arnasketa batzuk egingo ditugu, lasaitasunezko giroa sortzeko. Begiak itxi ditzatela eta musika jarrita dagoela, gogora ditzatela zorioneko izan diren, ondo pasatu duten egoerak, unek... Zehatz-mehatz gogora ditzatela, gogoratzen dituzten xehetasun guztiak kontuan hartuz... Bizpahiru minutuz pentsatu ondoren, apurka-apurka begiak irekiko dituzte, baina jarrera berean iraungo dute, hau da, eserita edo etzanda. Musikaren bolumena jaitsi eta hurrek esan dezatela nola sentitu diren eta azal ditzatela bururatu zaizkien egoerak.

Poztasuna, zoriona, beti besteekin gaudenean, hau da, hartu-emanen gaudenean, agertzen dela ikusaraziko die begiraleak.

Azaldu duten egoera marrazteko eskatuko diegu hurrei. Gero, gurasoei erakutsi eta azalduko diete.

"Bakarrik konponduko naiz"

Hurrei, adinaren arabera, zailtasun desberdinetako jarduerak proposatuko dizkiegu, inoren laguntzarik gabe, beraiek bakarrik, zer egin dezaketean jakin dezaten.

Adibidez: oinetakoak lotu, botoiak lotu, txingoka jauzi egin, ertzen barruan margotu, izena idatzi, paperezko hegazkina egin, bi marrazkiren arteko desberdintasunak aurkitu, binetak, istorioak ordenan jarri, Jesusekin hitz egin...

AZKEN UNEA ELKARREKIN

Egin dituzten marrazkiak eta bakarrik egin ditzaketen gauzak azalduko dizkiete haurrek gurasoei.

Familia bakoitzari zuhaitz-itxurako otoitza duen txartela emango diogu. Partaide bakoitzak, txandaka, erreguak irakurriko ditu (esaldiz esaldi), zuhaitza osatu arte. Ikusi eredua beherago.

Txartelaren alde batean, otoitza agertuko da eta bestean, otoitza bukatzean eta txartelei buelta emanaz denon artean osatuko dugun irudia. Txartel guztien artean osatuko da irudia¹.

¹ Taldeari ondoen egokitzen zaion pieza-kopuruarekin egingo du puzzlea eragileak.